

Izadi Furundarena Agirre

E maila • **Aipamena**

Izadi Furundarena Agirre naiz, 12 urte ditut. Beasaingo Ikastolan ikasten dut eta egindako lanak ilusioz egin banituen, sariak oraindik ere poz handiagoa eman dit. Nire zaletasunen artean musika eta dantza daude batez ere, eta nola ez lagunekin egotea. Koloretako mundu batean amets egiten dut, kolore guztiak dauden munduan.



GOIERRIKO HILTZAILEA

Beasaingo Dolarea hotelean gertaera ilun bat gertatu zen neguko gaurik luzeenean. Bertan lan egiten zuen Amaia garbitzaile gazteak. Egutero bezala hutsik geratu ziren logelak garbitu, oheak egin eta betiko lanetan ari zela pauso batzuk entzun zituen, norbait atzetik zebilkiola sumatu zuen. Urratsak geroz eta azkarrago entzuten zituen, erratza eskuetan zuela atzera begiratu eta pertsona bat ikusi zuen beltzez jantzita. Gizonezkoa zen, gorpuzkera sendokoa eta Amaia lepotik heldu zion. Amaia orduan erratzarekin jotzen saiatu zen baina ezin izan zuen gauza handiegirik egin. Jaso zuen labankadarekin ziplo erori zen lurrera. Hiltzaileak inor etortzerako garbitzailearen orgatik izara garbi bat hartu, bertan bildu eta ohe azpian sartu zuen inor etortzerako.

Hurrengo goizean hotelean ostatua hartu zuen gizon bat joan zen logelara, baina ohean sartu orduko odol tanta batzuk ikusi zituen ohearen hankaren inguruan. Ohetik jaiki eta makurtu zenean odolez beterik zegoen izara bat ikusi zuen ohe azpian. Berehala telefonoz 112 zenbakira deitu zuen. Ertzainek esan zien hamar minututan iritsiko zirela eta mesedez han itxaroteko.

Lopetegi eta Iraeta ertzainak iritsi ziren hotelera, logelan sartu eta lehenik eta behin ohe azpitik gorpua atera zuten, eta ondoren galdera batzuk egiten asi ziren gelan ostatu hartuta zegoen gizonari:

- Kaixo jauna, ezagutzen ahal duzu hildakoa? – galdetu zion Lopetegik.
- Kaixo, ez gaur iritsi naiz hotelera eta ez dut ezagutzen – erantzun zion gelako jabeak.
- Inor ikusi al duzu zure gelaren inguruan? - galdetu zion Iraetak.
- Harrerako emakumea ikusi dut ondoko logelara afaria ekartzen baina hortik aurrera besterik ez – erantzun zion negarrez, oraindik sustoa gorputzean zuela.

Ertzainek informazioa jaso zuten eta hildako gorpuari argazkiak atera zizkien. Lanak amaituta ertzain-etxera joan ziren froga guztiak hartuta. Bildutako frogak mahai gainean jarri eta biktimari buruzko informazioaren bila hasi ziren.

PROSA

Lehenengo hildakoaren familia eta bere ingurua miatzen hasi ziren, baina ikusi zuten gurasoak hilda zituela eta ez zuela anai-arrebarik. Orduan lagunak nor zituen bilatzen hasi ziren eta gertukoak zituen bi lagun topatu zituzten, Sara eta Mikel, bere mugikorrean mezu asko zituen hauekin partekatuta. Lehenengo Sararen etxera joan ziren eta galdera batzuk egiten hasi zitzaizkien. Emandako informazioa jasota Mikelen etxera joan ziren.

Mikelen etxera joan eta Sarari bezala galdera batzuk egin zituzkien, eta Mikelek informazio berria bat eskaini zien Amaiari buruz, mutil bat ezagutzen ari omen zen, Ander zuen izena eta Ordizian bizi zen. Lopetegi eta Iraeta agenteak datu berriak bilduta ertzain-etxera joan ziren. Zuten informazio guztia mahai gainean jarri eta momentuz susmagarririk ez zutela ikusita, Anderri bisita bat egitea erabaki zuten. Anderren etxera iritsi zirenean Amaiari buruzko galderak egin zituzkien, hasieran ez zuela ezagutzen esan zien baina galdeketak aurrera jarraitu zuen neurrian, onartu zuen behin edo behin elkarrekin egon zirela.

Ertzainak Anderrekin bukatutakoan hotelera bueltatu ziren pista berriak bilatzeko asmoz. Gela osoa miatu ondoren logelako atearen atzean botoi bat bilatu zuten. Botoi berezi samarra zen, gardena eta erdian tximeleta irudiarekin:

- Lopetegi, uste dut botoi hau aurrez ikusi dudala. – esan zion Iraeta agenteak.
- Egia da, uste dut Mikelek horrelako botoiak zituela.
- Goazen Mikeli beste bisita bat egitera. – proposatu zion Iraeta agenteari.
- Goazen lehenbailehen.

Kotxean sartu eta biak Mikelen etxerantz abiatu ziren. Etxeko txirrina jo zuten baina ez zuen atea inork irekitzen. Hori ikusita, Sararen etxera joan ziren ea berak zerbait ba ote zekien galdetzeko. Sarak esan zien egun batzuk pasa zirela elkar ikusi gabe. Iraetak poltsikotik botoia atera eta Sarari erakutsi zion, Sarari ez zitzaion ezaguna egin.

Agenteak Anderren etxera joatea pentsatu zuten, kasuarekin aurrera jarraitzeko beste aukerarik ez zutelako. Behin Anderren etxean zeudela, botoia erakutsi eta Anderrek esan zien:

- Nik uste dut horrelako botoi dun alkandora bat dudala- eta armairura joan zen begiratzera, baina ez zegoen bertan.

Agenteei esan zien alkandora falta zitzaiola, ez zuela topatzen. Hori ikusita agenteek beraiekin komisariara joan beharko zuela esan zien eta berak inongo eragozpenik jarri gabe joango zela esan zuen.

Behin komisaldegian zeudela, Anderri bere etxea miatzeko agindua zutela esan zien eta ez zien inongo oztoporik jarri.

Ertzainak Ordiziara joan ziren, Anderren etxera iritsi zirenean atea pixkatxo bat irekita zegoela konturatu eta isilean sartu ziren Lopetegi eta Iraeta. Behin etxe barruan zeudela lehenengo sukaldean begiratu zuten, ez zegoen inor. Bertan zeudela, zarata bat entzun zuten logela

PROSA

ingurutik zetorrela eta pistola eskuetan zutela logelarantz abiatu ziren.

- Geldi!-oihukatu zuten bi agenteek elkarrekin.
- Eskuak gora eta utzi alkandora lurrean! – esan zion Lopetegi agenteak Mikeli.

Bila zebiltzan alkandora eskuetan zuen Mikelek eta baita Amaia hiltzeko erabili zuen labana ere. Horrela, eskuburdinak jarri eta kotxean sartuta eraman zuten ertzain-etxeraino. Anderrek Mikel ikusi zuenean harrituta geratu zen eta bera libre utzi zuten berehala.